



KULTUR EKITALDIAK HIL HONETAN ZEHAR

Kontzertu, erakusketa eta hitzaldi ugari izango dira, besteak beste; Naturaldia apirilaren 16tik 22ra izango da » 2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-04-09

VIII. URTEA 1.970. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



2 zenbakiko nasan markesina berria egiten ari dira. I. GARCIA

Hil honetan hasiko dira tren geltokiko irisgarritasuna hobetzeko lanak

IKAZTEGIETA Adif erakunde publikoaren ardura da; Udala kexu da obrak ez direlako hasi oraindik 6

Leitzako, Aresoko eta Ibarako ordezkariak Banakakoan

AIZKORA Urrezko Aizkoraren hiru jardunaldi izango dira asteburuan; seik bakarrik egingo dute aurrera 7

Eusko Jaurlaritzak 6 milioi euro eman dizkio Amarozen paper-fabrikari

TOLOSA Industria sailak 3 milioi euroko mailegua eta beste 3 milioi eurotako bermea ematea onartu du 3



Pello Mari Otaño Errekalde baserrian jaio zen eta Argentinako Rosario hirian hil zen 1910eko maiatzaren 6an. HITZA

PELLO MARI OTAÑO, 'KATTARRO' GOGOAN

ZIZURKIL Maiatzaren 6an hil zeneko 100. urteurrena beteko da eta herrian ekitaldi ugari izango dira, tartean liburu baten aurkezpena 4-5



argazki lehiaketa

h



bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?



tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo **HITZA**ren Tolosako edo Leitzako egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

HITZA aste santuko argazki lehiaketa

1. Saria



lande

3. Saria



2. Saria



re
personent
ko aukera

ketxe
tzako
ukera

n eskutik,

Denetariko jardueraz, bete-betea

Kultura » Apirileko kultur eskaintza oparoa da; kontzertuetan Ken Zazpi nabarmendu behar da, eta antzerkian, Mokoloren omenezko emanaldia.

ERREDAKZIOA

Bete beterik datorkigu apirila kultur eskaintzari dagokionez. Antzezlanak eta kontzertuak nabarmen dira, eta horien artean, Mokolo pailazoa zenaren omenez Euskal Herriko pailazo ezagunek eskainiko duten emanaldia edota Ken Zazpi taldearen zuzeneko saioa. Erakusketetan ere aberatsa izango da hilabete hau, eta baita hitzaldietan ere, Naturaldia ekimena azpimarratu behar delarik.

Erakusketak

■ **'Aurrez Aurre: emakumeak protagonista'**. Aranburu jauregian ikusgai. Bihar izango da azken eguna.

■ **'Hala ere, natura gara'**. Nisa Goiburuk Naturaldirako bereziki egina. Apirilaren 16tik ekainaren 12ra arte, Aranburu jauregian.

■ **Adolfo Tannenbaum-en argazkiak**. Apirilaren 23tik ekainaren 12ra arte ikusgai, Aranburu jauregian.

■ **Txinako txotxongiloetako pertsonaia tradizionalak**. Maiatzaren 30era arte ikusgai, Topic-en.

■ **Mikel Telleria**. Bere lanak ikusgai egongo dira GKO Galerian, apirilaren 16tik maiatzaren 1era arte.

Ikuskizunak

■ **'Arrastoa'**. Txalo produzioen azken antzezlan, apirilaren 16an, Leidorren, 20:30ean.

■ **'Mokolo, eskerrik asko'**. Mokolo zenaren omenezko emanaldia, apirilaren 17an, Leidorren, 12:00etan.

■ **'The Con Harold Pinter y Dario Fo'**. Antzezlan, apirilaren 23an, Topic-en, 20:00etan.

■ **'El patito feo'**. A la sombrita konpainiaren antzezlan, apirilaren 25ean, Topic-en, 12:30ean.

■ **'XL Town'**. Pikor teatroaren antzezlan, apirilaren 30ean, Leidorren, 20:30ean.

■ **Udaberri Txiki eta Esbart Sant Martiko dantzariak**. Udaberrik antolatuta, apirilaren 24ean.

Musika

■ **Bonberenea txaranga**. Bihar, egun osoan, herriko kaleetan.

■ **Ze Esatek!** Apirilaren 16an, 22:30ean, Bonberenea.

■ **Potemkin eta Sharon Stoner**. Apirilaren 17an, 22:30ean, Bonberenea.

■ **Ken Zazpi**. Apirilaren 23an, Leidorren, 20:30ean.

■ **Atom Rhumba eta Gora Japon**. Apirilaren 23an, 22:30ean, Bonberenea.

■ **Tolosa Kantari**. Apirilak 24.

■ **Tolosako Musika Banda**. Uda-berri kontzertua, apirilaren 24ean.

■ **Mantisa**. Apirilaren 24ean, 22:30ean, Bonberenea.

Hitzaldiak

■ **Nazioarteko gaurkotasuna**. Jesus Torquemadarekin, Tolosaldean Ikastn-ek antolatuta, apirilaren 12tik ekainaren 14ra, astelehenero, 19:00etatik 21:00etara, Topic-en.

■ **Bizkarraren zaintza**. Kutxak antolatuta, Beti Gazte jubilatuen elkartean, apirilaren 13an, 18:30ean.

■ **Tolosa Naturaldia**. Apirilaren 16tik 22ra, Kultur Etxean.

■ **Palestinari buruzko hitzaldia**. Palestinaren aldeko Gipuzkoako plataformak antolatuta, apirilaren 23an, 18:00etan, Kultur Etxean.

■ **Euskarazko film laburrak**. Gal-tzaundi Euskara Taldeak antolatuta, apirilaren 28an, 20:00etan, Kultur Etxean.

■ **'La guerra de la independencia a traves del general Alava'**. Kutxak antolatuta, apirilaren 29an, 19:30ean, Kultur Etxean.

Ipuin kontaketa / tailerrak

■ **'Zientzialari zoroak'**. Haur Liburutegian, gaur, 12:00etan.

■ **Miriam Mendoza**. Ipuin kontaketa, apirilaren 15ean, Errotan.

Besteak

■ **Stock azoka**. Bihar eta etzi.

■ **Liburuaren Eguna**. Apirilaren 23an. Oparitxoak liburutegian.

■ **Odol ematea**. Apirilaren 19an, Kultur Etxean.



Adolfo Tannenbaum argazkilarikataluniarraren argazkiak ikusgai izango dira Aranburu jauregian. ADOLFO TANNENBAUM



Hilaren 17an Euskal Herriko pailazo esanguratsuenek emanaldia eskainiko dute Mokoloren omenez, Leidorren. I.T.

'Naturaldia 2010, bizi bizia'

Nazio Batuek Biodibertsitatearen Nazioarteko Urte izendatu dute 2010a. Planeta bizia eta aniztasun biologikoaren balioa ospatzeko urtea da, beraz. Ospakizun horrekin «gogo biziz» bat ginez, apirilaren 16tik 22ra izango dira aurtengo Naturaldia jardunaldiak. Ohi bezala, naturari buruzko informazioa zabaldu eta herritarrek gaitz horrekin hezteko izango dute helburu.

Koldobika Jauregi eskultoreak egin du aurtengo jardunaldien kartela, eta zintzilik jarriko dute Kultur Etxean hilaren 16an. Hala-

ber, egun horretan zabalduko dute Zerkausian jarriko duten *Biodibertsitate atarian* erakusketa. Gipuzkoako flora eta fauna aberastasunaren erakusgarri sinboliko bat izango da, tamaina handiko irudien. Hasierako jardunaldia arrantzari buruzko hitzaldiak osatuko du.

Hilaren 17an Naturaldiko bigarren erakusketa zabalduko dute Aranburun, hau da, Nisa Goiburuk egin duena. Hilaren 19an, *Mundu mailako aldaketa eta biodibertsitatea, sostengarritasunaren ikus-*

pegitik hitzaldia izango da; hilaren 20an, *Biodibertsitatea... Ibilaldia Capbretongo fosatik Aizkorri*; hilaren 21ean *Biodibertsitatearen zaintze laneko demak: UICN erakundearen eginkizuna*, eta hilaren 22an, *Flysch, haitez hitza proiektioa*.

Ospe handiko hizlariak izango dira Naturaldian, baina nabarmentzekoa da Jane Goodallen parte-hartzea, azaroaren 9an. Gombe Stream parke naziolean txinpanteen jokabidea ikertzen aritu da 50 urtetan, sari ugari jasoz.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Azken erailketa salatu dute

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA Leitzan eta Tolosan salaketa ekimenak egin zituzten atzo iluntzean, astelehenean Agurainen erail zuten 91 urteko emakumea gogoan zutela. Emakumeon Mundu Martxako Plata-

formak «emakumeon kontrako indarkeria kasuztat» hartzen du erailketa. «Emakumeon kontra ematen diren eraso guztietan sexismoa inplizituki beti agertzen baita», argitu du. ASIERIMAZ



Pello Odriozolaren egoera salatuz

TOLOSA Apirilean ere, hilero bezala, hainbat herritar kalera irten ziren Tolosan. Lizardi elkarteak deituta, atzo, elkarretaratzea burutu zuten udaletxearen aurrean. Bertan, Elkarteko kide den Pello Odriozola euskal presoaren askatasuna exijitu zuten. ASIERIMAZ

Jaurlaritzak 6 milioi euro eman dizkio Amaro paper-fabrikari

Tolosa » Neurria krisi ekonomikoari aurre egiteko martxan jarri duten '+Euskadi 09' ekimenaren baitan kokatu dute.



Amaroz paper-fabrika Amaroztz auzotik Legorretara eraman dute. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzako Industria sailak 3 milioi euroko mailegua eta beste 3 milioi euroko bermea eman dizkio Amaro paper-fabrikari ekizpena bikoizteko helburua bete dezan.

Zehazki, Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketak (SGECR) eman dio hiru milioi euroko partaidetza-mailegua eta bestetik, enpresak beste hiru milioi euroko bermea jaso du Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak prestatutako Txoko-bermeak izeneko programaren bidez.

40.000 tona egitetik 80.000ra

Amaroz paper-fabrikak papera fabrikatzen du XIX. mendearen amaieratik. Une honetan, bere fabrikazio gaitasuna zabaltzeko (bikoizteko) proiektu handi batean murgilduta dago.

Amarozek orain 40.000 tona fabrikatzen ditu urtean eta 80.000 tona fabrikatzea aurreikusten du bere Legorretako lantokian.

21 milioi euroko inbertsioa egin da guztira, enpresak 7,5 milioi jarri dituelarik kapital-zabalkuntzaren bitartez.

Bestalde, Amaro enpresak Tolosan dituen orubeak saldu ditu eta

beste 13 milioi euro lortu ditu salmenta horren bidez. Era berean, Amaro paper-fabrikako langileek jarri dute enpresako kapitalaren %41.

Arrisku Kapitala Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza,

Merkataritza eta Turismo Sailaren barruan dagoen SPRI Taldearen sozietate bat da eta neurria Eusko Jaurlaritzak krisi ekonomikoari aurre egiteko martxan jarri duen '+ Euskadi 09' izeneko ekimenen barnean sartzen da.



Gaur 3-8 urteko haurren txanda

IBARRA Apika taldeak 7 urtetik gorako haurrei ipuinak kontatu zizkien atzo Benito Izagirre kultur etxean, Pazko Asteko egitarauaren baitan. Kultura eta Gazteria Batzordeak antolatutako duen ekimena gaur amaituko da Lankuren Hiru, bi, zati... Egizu jola! bertso antzerkiarekin. 3-8 urte bitarteko haurrek beraz, zita bat dute gaur 11:30ean Kultur Etxean. A. IMAZ

Burdina Taldeak batzarra egingo du bihar

ERREDAKZIOA

Burdina Taldeak, ondare historikoa lantzen duenak, urteko lehen batzar orokorra egingo du bihar, Andoainen. Leitzarar bailarako

herritar guztiak deitu dituzte eurekin bat egin dezaten. Elkar ezagutzeko, lehenik ibilalditxo bat egingo dute. Hitzordua Andoaingo Zumea plazan jarri dute, 10:00etan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak
edo ikasleak behar dituzte
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info** helbidera

Nor: larrag@009@terra.es Euskal Herriko produktua, ekoizlearengandik zure eskura

Euskal Herriko Plazan egiten ditudan erosketak kolektiboak dira. Erosketak nik egiten ditut, baina sortak gurasoekin banatzen ditut: zainzuriak, ezta, orburuak, hegaluzea, lukainka, antxoak, piperrak, txakolina, ardoa... Erdiak haientzat eta beste erdiak niretzat.



Erref.: 190011
Pedro Luis kontserbak, zainzuri puntak, lodiak 228 ml-ko 12 poto



Erref.: 340004
Ostargi kontserbak, pikillo piper osoak 220 g-ko 12 poto

Beste produktu askoren artean, hauek topatuko dituzte Euskal Herriko Plazan.



www.euskalherriko
plaza.com
plaza@euskalherriko.com



erosi gurean

PELLO MARI OTAÑO



Pello Mari Otaño zuzarkidarraren argazkietako bat da. Maiatzaren 6an 100 urte beteko dira hil zela. 1972A

Zizurkil ▶ Maiatzaren 6an 100 urte beteko dira Pello Mari Otaño hil zela; liburu bat egiteaz gain, herrian hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

ENERTIZMAZ

Pello Mari Otaño bi karlistada handien artean ebitri zen munda-ra. Euskal Herria eraldatu nahi zuen mendearen erdialdera jaso zenez, giza-terren haustura oso gertatu zitzaizkion. Pello Mari Otañoaren eta Zizurkilgo Erekalde baserriko Joan Pello Otaño izan zen eta ama, Joana Basunia Berrida. Bederatzi seme-alaba izan zituzten eta 1857ko urtariraren 26an, Mikela Joaxeta eta Pello Mari bihaiki jai ziren Erekalde baserrian. Bertsoetan asozekitek ziren Erekaldeko gehiakinak, Pello Mari aitona, Joan Pello aitona, Jose Bernardo osoa, Baita Bernardo anaia, Mikela ama eta Mikela arreba ere. Erekaldeko jai bazen ere, haurtzarua bi etxetan

iguro zuten. Erekalde eta Karidadeko Bentan. Ezer guzxi dakigu P. M. Otañoen haurtzarari buruz. Ure horietako zerbaitei garbi gertatu bazagu, gure bertsoariak Jose Bernardo osabarekiko erakutsi zuten miresmena da. 1888an Amerikarik osabari bidaltako hogeta bi bertso dira horren lekuko, era askotara inprimaturik gonde direnak. Bertso haiei esker dakigugu Pello Mariaren Ameriketako zentibat istorioa pasate.

Hiri bidai Ameriketara

1873an, familiaren zati batek Zizurkildik ihes egin zuten Donostiaratu eta tartearen zati. Pello Mari Ameriketara 1875 urtean iritsi zen eta ez dakigu Pello Mari non eta zeinek bidai zen, dakigun spuru

da hemezortzi urte zituenean Buenos Airesen bihi zela. Horrela dio Pello Mariaren ezkontza-pape-rik: *desde la edad de 18 años herosido en Buenos Aires.* Hemezortzi urte zituela, seguru sako, mundua osagitzeko nahigaitik eta soldaduskaren ez jostare-aren, alde egin zuten. Azken Karlistadan, euskaldun gaste gutxiak er- madara eraman nahi zituzten. Pello Mari, gurdi bider bastera joan beharren gertatu zela. Euskal Herria itzuli zen ordea, bere soldaduskaren zama kendu ziotela jakin zutenen. Ez dakigu noiz iritsi zen. 1879. urtean etxean zen baina bigarren alde Ameriketara joan zen. Ez dakigunoz, Amerikalako hurrengo data segurua 1889ko dugu, zitorenaren deisioa jarraituz nonbat, Pello Mari Santa Feran joan zen. Joan Jose osaba amekiko osabitzera.

Otaño bidai hartan gaitortu zen, burutik eta bularek, eta Rosarioan sendatu zuten arebak. Asmaren eraginez edo Pello Mari bertsoak

kantatzeko arazoko izaten zituen. Oso ez ziren buruko zentea horre- gatik. Kuttaro izengoitia juri zio- ren. Plazetan aritzeko ezintasunak bertsoak idaztera bultzatu zuten. 1890ean, bertso Donostiarantz- Bizen. Ensonestia Maria Maglak- na Alberdi Deskarga donostiarra zen, Malen etxekoentzat. 1891ko elaiaren 11a orokonda ziren Ar- tzaio Otaño parokian. Bikotaren hiru semeak Donos- tian jai ziren: Bernardo, Migel eta Josexo. Familia bidai eta Amerika- tarantzaldea ezarribak zuten. Argenti- nara josteko zihuten asmenen zu- runnuruak zabalazuen, zizurkil- ko itxio bat sortu zuten gizarren baina ez zen gauza handirik egin bertsoletara Euskal Herrian etse- ren. Horrela, Donostialdeko Lore- Jo- koak antolatzen zituen erakundeak etabeste elkartetuz, diru bilaketa ordaineko. Argentinara joan bezeroak- to gaitortu zuten. Sotio amaitzen,

1904ko maiatzaren 6an hila

Perez herria itzultzen, bere giza- xotasuna aragotu egin zitzaion eta maiatzaren 6an familia Rosarion eraman zuten, non bihotzak huts egin eta zendu zen. Rosarionko Ere- gistro Zibilak jaso eta sinatutako 6289. agiriak dioenez: *en Montevideo 270 ha fallecido Don Pello Ma- ria Otaño de cincuenta y tres años de edad, de estado casado y de profesión maestro consecracion de Síncope cardiaca según consta en el certifi- cado médico.* Susana Ardanaz Otaño Txurbi- lobaren ikasketan zuten gaitortu- dio Otaño-Alberdi familia berehala Pehujora itzuli zela. Gorpua, or- dea, Rosarionko ospitalean behar- tuta geratu zen. Bizitzaren zu- runnoloz, Otaño-Alberdi familia La Plata hirian joan zen, eta hari ekarri zituzten Rosariorik Pello Mariaren hezurak. Gaur La Plata- ko herriko herma-hiloban dau- da. Pello Mari eta Malenon gor- puziak, Josexo, Teresa, Juanita eta Malenon seme-alabak eta be- ste hainbat ahalekin bitan.

▶ PELLO MARI OTAÑO HIL ZENEKO 100. URTEURRENEKO EKITALDIAK

Apirilak 16, ostirala
• **Amurza eta Peñagarikano.** Ber- toso ekitaldi bakia Elbarrenako Abulondo Kultur etxean 20:00etan. Sarrera: 3 euro.

Maiatzak 7, ostirala
• **Herriko Seme Kuttun.** Herriko seme kuttun izendatuko dute 19:00etan Udal Pleno Berezian.

Maiatzak 9, igandea
• **Otañoen Bilakida.** Plazatik hasi eta Adunabar, Erekalde, Karidadeko Benta, Belen, Izagire, Irigorri zaharkatu eta bertso Plazara.

Maiatzak 15, larumbata
• **Bertso Jaialdi handia.** Euskal Herriaren omenaldia Otañoari 18:30ean. Amurza eta Peñagarika- no eta Irujoa, Maja, Arzakul, Mendiluze, Agirre eta Alberdi.

Ekainak 16, La Platan
• **Omenaldi-ekitaldia.** 16:00etan, P.M. Otañoen hilibiaren aurrean omenaldia egingo diote.

Maiatzak 6, osteguna
• **Lituraren arkezepena.** Pello Mari Otañoen omenaldia Irujoan arkezepena Abulondo Kultur Etxean 20:00etan.

Maiatzak 12, asteazkena
• **Mahai ingurua.** 20:30etan, Pello Enal eta Xabier Euskaltez, Abulondo Kultur etxean, Otañoen obra literarioari buruz arko dira.

Maiatzak 20, osteguna
• **Bertsoak kantari.** 15:15ean, herriko hiru ikastetxeetako ikasleak Irujoan Frontoian, P.M. Otañoen

Hitzaldia. La Platan unibertsita- tean, 18:00etan hitzaldi-mahai- ingurua egingo dute eta ondoren afaria izango da.



Laurak Bat Elkarteko ikasle eta agintarien artean, eskuintek hasita ahulkin eserita dagoen bigarrena da. 1972A



Malen ama eta sei seme-alabak, Otaño hil ostean. 1972A



Karidadeko Benta zela. Pello Mari Otaño haurtzarua bi etxetan igaro zuen, Erekalde eta honako honetan. 1972A



La Platan dago Otaño-Alberdi herma-hiloba. HERNANDEKIN A.E.

Otaño omenduz, ekitaldi sorta datozen asteetan

Kultura ▶ Hernandorena Kultur Elkarteko kideek, lan handia egin dute *P.M. Otañoen omenaldia* liburua eta ekitaldi gutxiak prestatzen.

E MAIZ

Hernandorena Kultur Elkarteak iaizo udaberriari hasi zen Pello Mari Otañoen omenaldia irin- teaz zela eta prestatuta lanetan. Urtero egiten dute Maiatza Sal- tsan kultur ekitaldi ezberdinekin eta aurrerengoa, Udaleri, dira hari Otañoen inguruko ekitaldi eta- ko bideratzea eskatu zioten. Lan taldea osatu zuten: elkar- teko kideez gain, uiltzeta eta kultur teknikari, hiru ikastetxeetako or- dezkariek, Otaño eta Barriolaalde- ko familiako kideak eta zenbait he-

rritar bidai dira. Apirilak eta maiat- zeko prestatu dituzten ekitaldi- guzti horiek, lan talde honek hila- betetan egin duen lan guztiaren emaitza izan dira.

Otañoen Ameriketako bi biloba, Zizurkil izango dira
Joan Aizua tekkiko kideak, adun- Argentina bidai egin zuten eta bide batez, Otañoen arrastoen bila bidai zuten. Horrela, Argentinan bihurtu den bihaiki bokarrene osen- an izan zen. Susana Ardanaz Ota- ño, Txuri ezizenez ezaguna dena. Beste bihaiki berriz, Mexikon bidai- da.

Maiatza hasierarako Zizurkil- izango dira Argentinan eta Mexi- kon bidai diren bihaiki familiako beste kide batzuen laguntzarekin. «Udaz geroztik askotan hitz egingo dugu telefonoz eta 80 urte dituen

arren, emozioz beteta dago eta fa- milia mailan inoiz itzuli bati izan- da» dio Aizuk.

Berria ezizenezko beste bihaiki berriz, duela lau urte hil zela kon- tatsu digiari «Oso emakume jakin- suan izan behar zuten, matematika- ritzeaguna eta goi mailakoa izana- gatik oso apala. Idatzi ere egiten zuen eta omenaldia lehorrekin *Gita Gutarra* ipuin zoragarria idatzi zuen euskalaren jatorria azalduz eta hau ere, liburuaren sari dugi- na».

P.M. Otañoen arnasa liburu- a behin berrituzten, taldean lanean hasi ziren hemezote eta hango ilkerketa eta datuekin, eta poliki- poliki dokumentazio hori liburu baten bildu eta hasierako bideoa- moa gaurteza lortu dute. Maiatza- ren 6an aurkeztuko dute Ardu- ndo Kultur Etxean.



Hernandorena Kultur Taldean lanean aritu diren kideak. HERNANDEKIN A.E.



Hobetze-lanen bitartez, besteak beste, nasen luzera 160 metrotaraino handituko dituzte eta minusbaliotasuna duten pertsoneri 2 zenbakiko nasara jaistea errazteko arrapala egingo dute. I. GARCIA

Tren geltokiko irisgarritasuna hobetzeko lanak aurki hasiko dituzte

Ikaztegieta » Obrak hil honetan hasia espero du Adif-ek; egun nasaren markesina egiten ari dira Plan E-ren diru laguntzekin.

IMANOL GARCIA

Irisgarritasuna hobetzeko asmoz laster hasiko dira lanak egiten Ikaztegieta tren geltokian. Trenbideen azpiegiturak kudeatzen dituen Adiferakunde publikoa da obren arduraduna eta aurrekontua 489.186,84 eurokoa da. Ikaztegieta geltokia Irun-Brinkola aldiriko-linearen baitan kokatzen da.

Adif-ek aldiriko-linearen geltokietako irisgarritasuna hobetzeko egin duen planaren baitan daude Ikaztegieta egingo diren lanak. Horrela, minusbaliotasuna duten pertsonen geltokira errazago iritsi ahal izateko helburuarekin egingo dira lanak.

Hobetze-lan horien bitartez,



2 zenbakiko nasan markesina berria egiten ari dira egunotan. I. GARCIA

hain justu, 2 zenbakia duen nasara iristea erraztuko da eta nasa bate-tik bestera joateko oinezkoen pasabidea ere egokituko da. Horrela, minusbaliotasuna duten pertsonentzat erabilgarria izango den arrapala jarriko da eta pasabidearen lurzoruan Strail modeloko kautxu ez labainkorra jarriko dute,

segurtasun handiagokoa eta prestazio hobek ematen dituena.

Horrez gain, nasen altuera igokoa da, errailetik 68 zentimetrotaraino, trenetara errazago igotzeko. Nasen lurzorua berrituko dute hormigoizko galtzada-harriarekin eta ertzak egokituko dira. Nasak bai zabalera bai luzera handi

ditu egingo dituzte. Esaterako, luzera 160 metrotaraino handituko dute. Etorbizunean izan daitezkeen azpiegituri begira, kanalizazioak eta kutxatilkak jarriko dira.

Beste aldaketa bat argiteriaren hobetzea izango da eta horretarako egungo luminariak aldatuko dituzte. Obra guztiak Tragsa empre-

sari esleitu zaizkio eta hasten diren egunetik kontaktzen hasita, lau hilabetetan burutu beharko dituzte.

Adif-etik azaltzen dutenez, Gipuzkoako hainbat geltokietan irisgarritasuna hobetzeko egiten ari diren inbertsioa 1.847.006 eurokoa da. Tartean, Ikaztegieta egingo diren obrak.

Aparkalekua itxita

Geltokiaren inguruan hainbat azpiegitura jarri badituzte ere, lanak ez dira oraindik hasi. Hil honetan hasia espero dute Adif-etik. Bien bitartean, nasaren markesina berria egiten ari dira egunotan. Horretarako Plan E-ren diru laguntza erabiltzen ari da Adiferakunde.

Ikaztegieta Udalak kexu da obrak oraindik ez direlako hasi. Izan ere, otsailaren bukaeran kiroldegia ondoko aparkalekua itxi zuten, obrak hasi behar zituztelako. «Aparkaleku horiek garrantzitsuak dira herriarentzat», zehaztu dute Udaletik.

Bestalde, Udalak hala eskatuta, obretan aurreikusita zegoen espaloia luzatu egingo dute kiroldegia- ren sarreraino. Horrela, obrak amaitzen direnean, kiroldegia doazenak ez dute aparkalekua gurutatu beharrik izango.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORTZETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Hiru leitzar, aresoar bat eta ibartar bat Banakakoan

Aizkora » Urrezko Aizkoraren hiru jardunaldi jokatu dira bihar eta etzi. Mujika, Pellejero, Olano eta Saralegi anaiak ariko dira.

ASIER IMAZ

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketa abiadura izugarrian jarri dute martxan. Iragan astean 6 aizkolarik aurrera eginen lortu zuten eta 20tik gora kanpoan gelditu ziren. Ginean dugun asteburuan beste hiru kanporaketa jokatuko dira. Hauetan hiru leitzar, aresoar bat eta ibartar bat ariko dira. Oraingo honetan ere seik bakarrik egingo dute aurrera.

Ruben Saralegi eta Pellejero

Banakako Txapelketaren laugarren kanporaketa bihar jokatuko dute Zegaman, 19:30ean. Aurrekoetan bezala bederatzai aizkolarik plazaratu dira eta hauetatik bik bakarrik egingo dute aurrera. Ruben Saralegi leitzararekin eta Asier Pellejero aresoararekin batera ondorengoak ariko dira: Joxe Ugarteburu (Ezki); Luis Txapartegi (Aizarna); Xabier Aranberri, Elorriaga, (Zumarraga); Aratz Mugerza (Mutriku); Julen Kañameres (Arostegi); Juan Rodriguez

(Segovia) eta Jesus Mari Esnaola (Zegama).

Eneko Saralegi

Bosgarren jardunaldia etzi, hilaren 11n, jokatuko da Sakanako Dorrao herrian. Hemen ere bederatzai aizkolarik plazaratu dira 12:00etan. Zazpi lagun esango diote txapelketari eta ondorioz, bi bakarrik sailkatuko dira. Eneko Saralegi leitzararekin batera ondorengoak ariko dira: Felix Etxeberria (Sunbilla); Aitor Senosiain (Olague); Manu Kañameres (Arostegi); Juan Jose Erdozia (Etxarri); Iban Resano (Dorrao); Ugaitz

Mugerza (Mutriku); Goizeder Beltza (Etxarri) eta Angel Eraso (Jaitz).

Mujika eta Olano

Egun berean, hilaren 11n, asteburuko azken kanporaketa Zumaian jokatu dute. Jexux Mari Mujika ibartararekin eta Arkaitz Olano-rekin ondorengo aizkolarik lehiatuko dira 18:00etatik aurrera: Fausto Mugerza (Mutriku); Jose Etxebeste (Igeldo); Joxe Felix Zubizarreta (Azpeitia); Joxe Mari Telletxea (Oiarzun); Oihan Larretxea (Bera); Aritz Irazabal (Ugao) eta Raul Castro (Urrotz).



Banakakoan ariko dira astebururako Saralegi eta Olano leitzarrak. A. IMAZ

Z Zurea da hitza



TAOko lapurrak

Tolosara joaten naizen bakoitzean, beti jartzen dut TAOko tiketeta, saiatzen naiz behintzat. Baina hala ere, beti daude deskuidiak.

Behin orduz pasa nintzen, eta noski isuna jarri zidaten. Segituan anulatzea pentsatu nuen, nire usatez hoberena da, segituan kendu eta kitto. Eta diru xehe guztia lortu ondoren anulatu nuen, gainera esan behar da, Tolosako dendak nazkatuta daudela beti diru xehe bila beraingana joaten baitgara. Anulazioko orriak atera zirenean, poltsatxoan sartu eta buzoian sartu nuen dena. Ondoren konturatu nintzelarik, niretzako izan behar zuten ziurtagiria ere poltsan joan zela. Ez nion garrantzirik eman, dena ondo geratu zelakoan.

Ba ez!! Handik hilabete ertdira, anulatu nuen isuna, berriz ere postaz iritsi zitzaidan Tolosako Udaletik. Segituan Udaletxera deitu nuen, isun hura egun berean anulatu nuela esanez.

Baina noski, zer eskatuko didate lehenengo? Ea ziurtagiria non dudan. Baina nik ezin eman, poltsan joan baitzen.

Orduan TAOko bulegora jo nuen, etagertatu zitzaidana azaldu nion. Ba bertakoak esan zidan ez nuela anulazioa ondo egingo ze bestela berak eguneratuta izango zuela.

Orduan gaizki egindako karpetak begiratzen hasi zen (hau da,

jendeak gaizki egiten duenean anulazioa, edo justifikanterik gabe, edo justifikantea bakarrik sartzen duenean...).

Orduan esan nion ezinezkoa zela karpeta horretan egotea, ze oso oso ziur nengoela ondo egin nuela.

Beraz nire anulazioa nonbaiten egon behar zuela. Eta esaten ez dit ba berriro, ez nuela ordainduko edo gaizki egin nuela. Eta nahi baren errekurtso bat jartzeko.

Beraz, nire galdera da, ni bezala jende gehiago egongo da ba...

Eta nire hamar euroren anulazioa, non dago?

Eta nor geratu da nire hamar euroekin?

Nik hamar euro ordaindu eta ezin dudanez justifikatu orain 21 euroko isuna ordaindu behar dut. Zeren, rekursoa jartzen badut, eta atzera bueltatzen badidate, 30 euro izango dira.

Nik guzti honi, AURPEGIRA LAPURTEZEA ETA BARRE EGI-TEA esaten diot.

Maitane.

Clown ikuskizuna bihar Urepelen

Berastegiko Urepele elkarteak antolatutako Clown ikuskizunera gonbidatzen zaituztegu guztioi. Animatu!

Emanaldia bihar larunbata, apirilak 10, gaueko hamarretan izango da.

Urepele Elkarte.

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Azken enuntziario 1500ko artzateko mugatik soilik argitaratuko dira. IRAGARKIAR JARTZEKO: www.tolosalko hitza.iragarkilaburrak.com / 943-655673 telefono pribatua

Higieztzak
ETXERATZAK
SALBU

Tolosa. (Vitis-Corotoki) Eraldaturiko etxebizitzak salgai (75m²). Pro-nortoren bako zueneko salmenta. Salaketa eta 2 konsumatibuz, eragone handia eta 2 logia. Argitasa. Komunua izan esik, beste gutxiak kanpora begira. 2 terraza eder eta baita terraza ere. Piztasuneko salmenta. 658-7219768.

Lana/bergatza
LAN EKARIAK
PERTSONAK ZAINDU

Lizartza. Adineko pertsonak zaintzeko enakur-erakundeak diren enkaizentzian, gidatze baimena da. Harenan ibariko delu telefono zerbitzua: 659-972699.

IRAKASUNTZA

Villabona. Ingulterko eskola ematen dira Gipuzkoan. Tulekiko edo bakarka. Milla ezberriak. Inakzioa. Harenan ematen diren telefono zerbitzua: 664-360268.

id eta posta elektronikoa ematen a36@hotmail.com.

KANPOKOAK GUREAN
Lan eskariak
GABERADAK

Urepele. Asteburuetan etxeko lanak egiten dituzten pertsona berriak zaituzten lanerako nuke. Esperientzia handia du eta erreferentziak ditu. Harenan ematen: 638-755129 (Celine).

Uxarbil. Zure etxerako alaiagoa eta politagoa egiteko aholkularia nahi baduzu, aukera hoberena gaur! Etxe erositza eta erositza gabe erosten dituzte. Muzika lokalak jartzen dago. Gipuzkoan inguruetan mugitzen gara. Harenan ematen: edelots@hotmail.com.

LAN ERANTZAK
PERTSONAK ZAINDU

Dublin (Irlanda). Gure hama zainduko duen Au Pair baten bila gaur! Familia Ezkial-Holanda. Euzkara hitz egiteko ezinbestekoa. Astean best

egoneko lana. Dublin-Inguruetan. Baidintzatuz jakiteko bidali mezu bat iragarki@gmail.com-esa.

Higieztzak
SARAJI/IRATZETZAK
SALBU

Donostia. Donostian-Antiguin-Errotaburuz gaur hitz salgai. Foroa sartuko eta beste mardian erabili dabilke. Prezioa: 24.000 Euro. 608-019593.

Leku hau zure iragarkiaren zain dago

SEAT AUTO
auto/ ARTIBAI .i.
SEAT - AUDI - VOLKSWAGEN
BMW 328i FULL EQUIP 11.000 euro
FORD SCORP TURBO DIESEL ondo zaindu / 2.000 euro
SEAT LEON 106 105 ZAID BERRIA 16.000 euro / Irizteak 501 kilometro
AUDI A4 KARBETIK GARRO AUTOA Oso ona / 3.000 euro
AUDI A4 KARBETIK GARRO AUTOA 1.700 euro
Indatza auzoa 2/1 • Maritima-kerria Tel.: 94-616 77 14 / Fax: 94-616 77 69

ARAMBURU Osoen administratzailea Higieztzaile lantokietan
943-65 17 13 / 677-46 09 16

ALOKATZEKO
• Etxeak Amaren, San Frantzisko eta Lumen, Tolosan.
• Kanpalekuak San Frantzisko, Añeta etxek, lumen eta Beñerik Zaldibain, onakiko adierazten.
SALGAI
• Etxebizitza. Larrañaga, ingulterekin, erakunde berrak. San Frantzisko eta auzoak onak.
• Etxebizitza. Induraineko lantokian, 20 metro pila.
• Etxebizitza. Iruan. Sardinia moduan. Eskaintza ona.
• Garaje itxak eta irekiak Amaren Tolosan, lumen eta lumen.
• Lokala. Gorte plaza, Tolosa.

AMERIKAZKO ETXEA
Erekituzko berria, bileratuzko lantokietan.
298.485 €

iriztebesagasti
SARNETAK - ERROTAK - ALKARIAK - ASSOURIAK
Tel: 943 69 58 52 / Fax: 943 69 58 51
www.iriztebesagasti.com

ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
Bengener, 7 (Gentea, lumen-Plaza) • BEASAIN
943-16 20 48
Buzi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

Saltide
SALBIDE
Higieztzaile zerbitzuak
Bekasun kalea, 6 • 20800 Zarautz
Tel.: 943-01 07 00 • Mug.: 665-71 85 96
www.inmesaltide.com

Aizarnazabal. 3 logialako etxebizitza, 10 metroko terraza, trasteroak. Oso prezio onak. 33.000.000 pezeta.
Zarauz. Añeta-Portu Logia (bakeko etxe handia) Añeta eta lumen etxek. Trasteroak eta ingulterak. 47.500.000 pezeta.
Zarauz. Erdigunean 3 logialako etxebizitza. Lagunen solaria, ingulterekin gabe. 10 metroko terraza, trasteroak. Oso prezio onak. 43.000.000 pezeta.
Zarauz. Vito Alegren. 2 logia ditu. Terraza handia. Egurak. 49.500.000 pezeta.
Zarauz. Erdigunean. 2 logialako etxebizitza. Ingulterekin eta trasteroak beki beki. Oso onak. 41.000.000 pezeta.
Zestoa. Arria behe. 2 logialako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.
Getaria. Herriaren kalea. 3 logia eta 2 burugelako etxebizitza. Trasteroak. Egurak. 41.500.000 pezeta.



15°
7°

GOIZA OSKARBI
ARRATS. OSKARBI
BEROENA 18°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Gorostiagak Asturiasen ateratako argazkia bidali du XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Hilak 28 da argazkiak bidaltzeko azken eguna.

Paisaiekin gozatuz



ASTURIAS

«Aste Santu honetan Asturias aldean ibili gara. Bertako paisai ederrez gozatzeko aukera izan dugu. Argazki hau Deva errekarari aterakoa da, Potes eta Arenas de Cabrales artean», azaldu du Naiara Gorostiagak. Tolosarrak hiru sarietako bat irabazi dezake: Busturiako Iturbe landetxean bi pertsonentzako bi gau, Bermeoko Artiketxe landetxean bi pertsonentzako bi gau edota Larte gaztagileen eskutik bi gazta eder. tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera elektronikora bidali ditzaitezue zuen Aste Santuko argazkiak. NAIRA GOROSTIAGA

A Agenda

Aisialdia

■ **Tolosa.** Zientzialari Zoroak Errota Haur Liburutegian 12:00etatik 13:00etara.

Antzerkia

■ **Elduain.** Txalo taldearen *Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria* haurrei zuzenduriko emanaldia. Larte kultur etxean 17:30ean.
■ **Ibarra.** Lanku taldearen eskutik *Hiru, bi, zast... Egizu jolas!* bertso antzerkia 3 eta 8 urte arteko haurrentzat. Kultur Etxean izango da, 11:30ean.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Emakumeak protagonista *Aurrez aurre* erakusketa interaktiboan Aranburu Jauregian. 23 emakume artistaren lanak. Hilaren 10a arte.
■ **Villabona.** Idoia Iturri artistaren erakusketa Erreka tabernan maiztaren erdira arte. Margolanak eta teknika nahasiarekin egindako obrak daude ikusgai.

Zinema

■ **Tolosa.** *Green zone* filma Leidor aretoan, 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.
■ **Leitza.** Larraia M. I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia (FM 107.5 eta 101.2)

11:00. Tolosaldeko Ahotsa: albistegia, magazina, lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30.** Info 7: eguerdiko albistegi nagusia. **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa: albistegia. **16:00.** Arrosa: II Trenoa (Eguzki). **17:00.** Musika. **18:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena): magazina eta albistegia. **20:00.** Info 7: Iluntzeko albistegi nagusia.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Stock and Braderie in Tolosa

Zatoz tolosara!
apirriak 10 - 11 de abril

Alde Zaharra
TOLOSAREN UDALAK

TOLOSAREN UDALAK